Agintariak eta Langileria

Oposaketak eta Lehiaketak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

102

EBAZPENA, 2009ko abenduaren 14koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketako zuzendariarena, Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren 2007ko uztailaren 30eko Ebazpena aldatzen duena; ebazpen horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren kidegoan sartzeko hautaketa-prozesuan hautatutako izangaien behin betiko zerrendak jendaurrean jarri ziren. Ebazpen hori aldatu egiten da, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak emandako epaia betez, Silvia Nieto García andreak aurkeztutako 1978/07 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan.

Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren kidegoan sartzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2007ko martxoaren 16ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozesuan parte hartu zuen Silvia Nieto García andreak.

Silvia Nieto García andreak 7,6180 puntu lortu zituen guztira, adierazitako hautaketa-prozesuan, baina bertatik kanporatu egin zuten, ez zuelako egiaztatu eskatutako hizkuntza-eskakizuna.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak zati batean baietsi du Silvia Nieto García andreak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 2007ko urriaren 9ko Aginduaren kontra aurkeztutako errekurtsoa, eta deklaratu du aurkaratutako ebazpena zuzenbidearekin bat ez datorrela eta errekurtsogileak hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrendan sartzeko eskubidea daukala. 2007ko urriaren 9ko Aginduaren bidez ezetsi egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren kidegoan sartzeko hautaketa-prozesuan hautatutako izangaien behin betiko zerrendak jendaurrean jarri zituen 2007ko uztailaren 30eko Ebazpenaren kontra jarritako gora jotzeko errekurtsoa.

Epai horretako epaitzan erabakitakoa betez,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Aldatzea Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren 2007ko uztailaren 30eko Ebazpena,

Autoridades y Personal

Oposiciones y Concursos

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

102

RESOLUCIÓN de 14 de diciembre de 2009, del Director de Gestión de Personal del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, que modifica la Resolución de 30 de julio de 2007 de la Directora de Gestión de Personal, por la que se hacen públicas las listas definitivas de aspirantes seleccionados en el proceso selectivo para el ingreso en el Cuerpo de Maestros de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en cumplimiento de la sentencia dictada por la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el recurso contencioso-administrativo n.º 1978/07 interpuesto por Dña. Silvia Nieto García.

Dña. Sivia Nieto García participó en el proceso selectivo convocado por Orden de 16 de marzo de 2007 del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, para el ingreso en el Cuerpo de Maestros de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Dña. Silvia Nieto García obtuvo una puntuación total de 7,6180 en el proceso selectivo mencionado, si bien fue excluida del mismo por no acreditar el perfil lingüístico exigido.

La Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco ha estimado en parte el recurso interpuesto por Dña. Silvia Nieto García contra la Orden de 9 de octubre de 2007 del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco desestimatoria del recurso de alzada interpuesto contra la Resolución de 30 de julio de 2007 por la que se hacen públicas las listas definitivas de aspirantes seleccionados en los procesos selectivos para el ingreso en el cuerpo de maestros de la Comunidad Autónoma del País Vasco, declarando la no conformidad a derecho de la Resolución impugnada y el derecho de la recurrente a su inclusión en la lista de aspirantes que han superado el proceso selectivo.

En cumplimiento de lo acordado en el fallo de la Sentencia citada,

RESUELVO:

Primero.– Modificar la Resolución de 30 de julio de 2007, de la Directora de Gestión de Personal, por

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2007ko martxoaren 16ko Aginduaren bidez deitutako Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren kidegoan sartzeko hautaketa-prozesuan hautatutako izangaien behin betiko zerrendak jendaurrean jarri zituena, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak 1978/07 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan emandako epaia betez, eta Silvia Nieto García andrea maisu-maistren kidegoan izangai hautatu gisa sartzea, Haur Hezkuntzako espezialitatean, txanda librean, 2. hizkuntza-eskakizunarekin eta 7,6180ko puntuazioarekin.

Bigarrena.– Hogei egun naturaleko epea irekitzea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, hautatu gisa izendatutako izangaiak 2007ko martxoaren 16ko Aginduaren 11. oinarrian zerrendatutako agiriak Hezkuntzako edozein lurralde-ordezkaritzatan aurkez ditzan.

Epe horren barruan, ezinbesteko kasuetan izan ezik, adierazitako agiriak aurkezten ez baditu, edo horiek aztertu ondoren aipatutako aginduaren bigarren oinarrian adierazitako baldintzaren bat betetzen ez duela ondorioztatzen bada, karrerako funtzionario izendatua izateko eskubide guztiak galduko ditu, eta hasierako eskabidean faltsutze-delitua egiteagatiko erantzukizunean eroriko da.

Hirugarrena.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Silvia Nieto García andrea praktiketako funtzionario izendatuko du.

Izangai horrek esleitutako destinoan egin beharko ditu praktikak, eta hautaketa-prozedurari uko egiten diola ulertuko da, horretan hasten ez bada.

Laugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salari dagokio epaia betearazteko izapideetan sor litekeen guztiaz arduratzea, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenaren 103.1 eta 109. artikuluek xedatzen dutenari jarraiki.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko abenduaren 14a.

Langileriaren Kudeaketako zuzendaria,
JUAN MANUEL ARAMENDI ARTEAGA.

la que se hacen públicas las listas definitivas de aspirantes seleccionados en el proceso selectivo para el ingreso en el Cuerpo de Maestros de la Comunidad Autónoma del País Vasco convocado por Orden de 16 de marzo de 2007 del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, en cumplimiento de la sentencia dictada por la Sala de lo contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el recurso contencioso-administrativo n.º 1978/07, incluyendo a Dña Silvia Nieto García como aspirante seleccionada en el Cuerpo Maestros, Especialidad Educación Infantil, turno libre, perfil lingüístico 2, con una puntuación de 7,6180.

Segundo.– Abrir un plazo de veinte días naturales a contar desde el día siguiente al de la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, para que la aspirante declarada seleccionada presente los documentos enumerados en la base 11 de la Orden de 16 de marzo de 2007, en cualquiera de las Delegaciones Territoriales de Educación.

Si dentro del plazo fijado, salvo los casos de fuerza mayor, no presentara la documentación señalada o del examen de la misma se dedujera que carece de alguno de los requisitos señalados en la base segunda de la citada Orden, decaerá de todos sus derechos a ser nombrada funcionaria de carrera, sin perjuicio de la responsabilidad en que hubiere incurrido por falsedad en la solicitud inicial.

Tercero.– Por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación se procederá al nombramiento de funcionaria en prácticas de Dña. Silvia Nieto García.

Dicha aspirante deberá efectuar las prácticas en el destino adjudicado, entendiéndose que renuncia al procedimiento selectivo en caso de no incorporarse al mismo.

Cuarto.– Compete a la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco conocer de cuanta cuestión pueda plantearse en trámites de ejecución de la Sentencia, conforme a lo que disponen los artículos 103.1 y 109 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de diciembre de 2009.

El Director de Gestión de Personal,
JUAN MANUEL ARAMENDI ARTEAGA.